



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 4a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premia ditzan. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premia ditzan eskura dituen mekanismoak erabil ditzan familiek haur-eskoletan seme-alabak euskaraz matrikulatzeko duten eskubidea bermatzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premia ditzan bere gain har dezan 0-3 zikloaren titulartasuna eta departamentuak berak, halaber, Iruñeko Udala premia ditzan ziklo horretako euskarazko ikaspostuen eskaintza bat egin dezan egoki banatuta hiriko auzoetan zehar. Hezkuntza Batzordeak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, migratzaileei eta errefuxiatuei harrera eta laguntza emateko proiektuetarako irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, kulturarteko bizikidetzak sustatzeko eta parte-hartzea hobetzeko jarduerak egiteko migratzaileen elkarlanean dirulaguntzen deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, kulturarteko bizikidetzak sustatzeko eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuetarako toki-entitateei eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei dirulaguntzak emateko deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, “Gaztelania eta euskara ikasi, Nafarroan etorkinen benetako gizarteratzea lortzeko lehen urratsa” proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, langile sanitarioen eta soziosanitarioen artean konfirmatutako COVID-19ko kasuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

- Galdera, erizaintzako ikasleei egindako kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, profesional sanitario eta soziosanitarioek pandemiaren garaian egindako lanarengatik emandako Nafarroako urrezko dominari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Turkian atxikita egon ziren arnasgailuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurka jarri diren txertoen datuak gardentasunaren atarian argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasuneko teknikariei karrera profesionala aitortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren 2020ko aurrekontuaren exekuzioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Kultura eta Kirol Departamentuaren 2020ko aurrekontuaren exekuzioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Erabakia, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia bat sortzeko. Erregelamendu Batzordeak onetsia (18. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendaria (2021-2024). Proposamenak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako premia nagusiak ase ditzan.

MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak, 2021eko martxoaren 2an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako premia nagusiak ase ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ase ditzan Nafarroako

Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako premia nagusiak, Foru Komunitateko herritar guztientzako justizia arinagoa eta eraginkorragoa lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bizi dugun egoera ekonomiko korapilatsua aitortu arren, Justiziaren arloan aurrekontu-ahalegina egin dezan, gure erkidegoa 2022an hurbildu dadin beste autonomia-erkidego batzuek arlo horretara bideratzen duten ehunekora”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da eskura dituen mekanismoak erabil ditzan familiek haur-eskoletan seme-alabak euskaraz matrikulatzeko duten eskubidea bermatzeko.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2021eko otsailaren 24an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da eskura dituen mekanismoak erabil ditzan familiek haur-eskoletan seme-alabak euskaraz matrikulatzeko duten eskubidea bermatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, bere eskumenez baliatuta, eskura dituen mekanismoak erabil ditzan nahi duten familiek Iruñeko haur-eskoletan seme-alabak euskaraz matrikulatzeko duten eskubidea bermatze aldera, eskaintza nahikoa eta geografikoki orekatua eginez”.

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da bere gain har dezan 0-3 zikloaren titulartasuna eta departamentuak berak, halaber, Iruñeko Udala premia dezan ziklo horretako euskarazko ikaspostuen eskaintza bat egin dezan egoki banatuta hiriko auzoetan zehar.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2021eko otsailaren 24an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da bere gain har dezan 0-3 zikloaren titulartasuna eta departamentuak berak, halaber, Iruñeko Udala premia dezan ziklo horretako euskarazko ikaspostuen eskaintza bat egin dezan egoki banatuta hiriko auzoetan zehar".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du 2021-2022 ikasturterako 0-3 zikloan Iru-

ñeko euskarazko ikaspostuen eskaintza egoki banatuta egon dadin hiri osoan zehar; hain zuzen ere gaur egun gaztelaniazko ikaspostuak dauden bezala.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du bere gain har dezan 0-3 zikloaren titulartasuna, Haur Hezkuntzako etaparen parte den heinean, eta haren egitura eta curriculumak jorra eta zehatz ditzan, kontuan hartuz egitura zein antolaketa arloan diren aukera ezberdinak (0-6 ikastetxe publikoak, 0-3/0-6 ikastetxe integratuak edo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin lotuak, besteak beste), oso bereziki landa eremuko eskolan".

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, migratzaileei eta errefuxiatuei harrera eta laguntza emateko proiektuetarako irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, migratzaileei eta errefuxiatuei harrera eta laguntza emateko proiektuetarako irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide izan eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00366):

“Nortzuk izan dira, izen-abizenak eta betetzen duten kargua adierazita, 2020rako migratzaileei eta errefuxiatuei harrera eta laguntza egiteko proiektuetarako irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoko kide? Nortzuek egin dute deialdi horretan aurkeztutako proiektuen balorazioa?”

Hona hemen erantzuna:

Maiatzaren 14ko 10/2020 Foru Aginduak, kontseilari honek sinatutakoak, irabazi-asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdia onesten du, 2020. urterako, migratzaileei eta errefuxiatuei harrera eta lagun egiteko proiektuetarako. Eranskin gisa, deialdiaren oinarriak jasotzen ditu.

Bederatzigarren oinarriak honako hau dio: “Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokoa izanen da, bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.1 artikularekin”. Argi aipatzen dira, halaber, balorazioa egiteko baremoak eta honako hau ere aipatzen da: “Karibu-Migratzaileei Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzuak tramitatuko ditu eskaerak, berbera izanen baita instrukzio eta kudeatzailetza organo izendatua. Horrexek egiaztatuko du dirulaguntzak hartzeko betebeharrak betetzen diren, eta eskaerak ofizios baloratuko ditu, oinarri hauen arabera”.

Eskabideak oinarrien arabera ofizios balorazioa ez da kontu pertsonala, administratiboa baizik, eta Karibu Zerbitzuak zerbitzu-kidegoan eginen du. Beraz, nire ustez, esku-hartzaileei buruz egin duzun galdera oso urrun dago gobernuaren kontrol-funtziorako balio izatetik; izan ere, kontrol-funtzio horixe da parlamentari gisa nahitaez bete beharrekoa.

Ildo horretan, eta nire ustez, Karibu Zerbitzu osoa da proiektuen balorazio zuzenagatik erantzuten duena; eta, horrenbestez, Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusi osoa da proiektuen balorazio egoki horrengatik erantzuten duena. Eta kontseilari honek ez du zertan banaka adierazi zein pertsonak egin duten administrazio-lan hori (“izen-abizenak eta betetzen duten kargua adierazita”).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko eta parte-hartzea hobetzeko jarduerak egiteko migratzaileen elkarteentzako dirulaguntzen deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko eta parte-hartzea hobetzeko jarduerak egiteko migratzaileen elkarteentzako dirulaguntzen deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00367) Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“Nortzuk izan dira, izen-abizenak eta betetzen duten kargua adierazita, kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko eta parte-hartzea hobetzeko 2020. urtean egindako jardueretarako migratzaileen elkarteentzako dirulaguntzak emateko deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoan parte hartu dutenak? Nortzuek egin dute deialdi horretan aurkeztutako proiektuen balorazioa?”

Hona hemen erantzuna:

Uztailaren 14ko 17/2020 Foru Aginduak, kontseilari honek sinatutakoak, migratzaileen elkarteentzako dirulaguntza deialdi bat onesten du kulturen arteko bizikidetzaren sustatzeko eta parte-hartzea hobetzeko jarduerak egin ditzaten 2020. urtean. Foru aginduaren eranskinean deialdiaren oinarriak ageri dira.

Bederatzigarren oinarriak honako hau dio: “Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokakoa izanen da, bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.1 artikularekin”. Argi aipatzen dira, halaber, balorazioa egiteko baremoak eta honako hau ere aipatzen da: “Ayllu-Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Zerbitzuak tramitatuko ditu eskaerak, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak izendatu baitu instrukzio organo eta organo kudeatzaile gisa. Horrexek egiaztatuko du dirulaguntzak hartzeko betebeharrak betetzen diren, eta eskaerak ofizioz baloratuko ditu, oinarri hauen arabera”.

Eskabideak oinarrien arabera ofizioz balorazioa ez da kontu pertsonala, administratiboa baizik, eta Ayllu Zerbitzuak zerbitzu-kidegoan egingen du. Beraz, nire ustez, esku-hartzaileei buruz egin duzun galdera oso urrun dago gobernuaren kontrol-funtziorako balio izatetik; izan ere, kontrol-funtzio horixe da parlamentari gisa nahitaez bete beharrekoa.

Ildo horretan, eta nire ustez, Ayllu Zerbitzu osoa da proiektuen balorazio zuzenagatik erantzuten duena; eta, horrenbestez, Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusi osoa da proiektuen balorazio egoki horrengatik erantzuten duena. Eta kontseilari honek ez du zertan banaka adierazi zein pertsonak egin duten administrazio-lan hori (“izen-abizenak eta betetzen duten kargua adierazita”).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuetarako toki-entitateei eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei dirulaguntzak emateko deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuetarako toki-entitateei eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei dirulaguntzak emateko deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00368) Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“Nortzuk izan dira, izen-abizenak eta betetzen duten kargua adierazita, kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko 2020rako proiektuetarako tokiko erakundeentzako eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako dirulaguntzak emateko deialdiaren instrukzio- eta kudeaketa-organoan parte hartu dutenak? Nork egin du deialdi horretara aurkeztutako proiektuen balorazioa?”

Hona hemen erantzuna:

Uztailaren 13ko 9/2020 Foru Aginduak, kontseilari honek sinatutakoak, onesten du toki erakundeentzako eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko entitateentzako dirulaguntzen deialdia, 2020. urterako, kulturen arteko bizikidetzaren eta arrazakeriaren nahiz xenofobiaren aurkako

borroka sustatzeko proiektuetarako. Eranskin gisa deialdiaren oinarriak ageri dira.

Bederatzigarren oinarriak honako hau dio: “Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokakoa izanen da, bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.1 artikuluekin”. Argi aipatzen dira, halaber, balorazioa egiteko baremoak eta honako hau ere aipatzen da: “Ayllu-Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Zerbitzuak tramitatuko ditu eskaerak, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak izendatu baitu instrukzio organo eta organo kudeatzaile gisa. Horrexek egiaztatuko du dirulaguntzak hartzeko betebeharrak betetzen diren, eta eskaera ofizios baloratuko ditu, oinarri hauen arabera”.

Eskabideak oinarrien arabera ofizios balorazioa ez da kontu pertsonala, administratiboa baizik, eta Ayllu Zerbitzuak zerbitzu-kidegoan egingen du. Beraz, nire ustez, esku-hartzaileei buruz egin duzun galdera oso urrun dago gobernuaren kontrol-funtziorako balio izatetik; izan ere, kontrol-funtzio horixe da parlamentari gisa nahitaez bete beharrekoa.

Ildo horretan, eta nire ustez, Ayllu Zerbitzu osoa da proiektuen balorazio zuzenagatik erantzuten duena; eta, horrenbestez, Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusi osoa da proiektuen balorazio egoki horrengatik erantzuten duena. Eta kontseilari honek ez du zertan banaka adierazi zein pertsonak egin duten administrazio-lan hori (“izen-abizenak eta betetzen duten kargua adierazita”).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, “Gaztelania eta euskara ikasi, Nafarroan etorkinen benetako gizarteratzea lortzeko lehen urratsa” proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Gaztelania eta euskara ikasi, Nafarroan etorkinen benetako gizarteratzea lortzeko lehen urratsa” proiektuari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00370) Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“Next Generation UE funtsetara aurkeztu den edo aurkeztuko den “Gaztelania eta euskara ikasi, Nafarroan etorkinen benetako gizarteratzea lortzeko lehen urratsa” proiektuak jasotzen duenez, 2021ean Nafarroako Gobernuak 385.000 euro bideratuko ditu helduek gaztelania ikastera Hezkuntza Departamentuko helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxeen bidez.

1.- Nola iritsi da kopuru horretara?

2.- Zer xehakatzeko egin da helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako partiden barruan, helduentzako gaztelaniaren hezkuntzari zenbaterako hori dagokiola ondorioztatzeko?

3.- 2021ean nola banakatuko dira gaztelania irakasteko 385.000 euro horiek?

4.- Kopuru horretan sartzen al da euskara irakastea? Hala bada, gastuak hezkuntzaren arabera xehakatzeko nahi dugu.

5.- Hala ez bada, zer baliabide bideratzen dituzte gaur egun helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxeek euskara irakastera?

Hona hemen erantzuna:

Parlamentari jaunak aipatzen duen dokumentua Next Generation EB Europako funtsen deialdirako hasierako aurreproiektua edo proiektu-proposamena da.

Dokumentu hori kontuan hartu behar da, oro har, hasierako aurrekontu gisa jasotzen dena baloratzeko.

Hezkuntza Departamentuko helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxeen bidez helduei gaztelania irakasteko 385.000 euroen gainean adierazitako zenbaterako helduei gaztelania irakasteko langile-kostuei dagokie. Hezkuntza Departamentuak eman zuen informazio hori, aipatutako dokumentua egiteko.

Gaur egun helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxeetan euskara ikasteko bideratzen diren baliabideei dagokienez, ez dagokio kontseilari honi datu hori ematea, Hezkuntza Departamentuari baizik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 3an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, langile sanitarioen eta soziosanitarioen artean konfirmatutako COVID-19ko kasuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillen andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, langile sanitarioen eta soziosanitarioen artean konfirmatutako COVID-19ko kasuei buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20- PES-00373), zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu “langile sanitarioen eta soziosanitarioen artean Nafarroan egiaztatu diren COVID-19aren kasuei buruz”. Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Galdera parlamentarioaren erantzunaren datuak COVID-19aren kasuetatik datoz. Kasu horiek 2020ko maiatzaren 10aren ondorengo diagnostikoarekin jakinarazi zitzaizkion RENAVE-ri, pandemia hasi zenetik maiatzaren 9ra arte deklaraturakoak izan ezik, horiek COVID-19ak

ukitutako osasun-erakundeetako langileen deklarazioetatik lortzen baitira, eta deklarazio horretan Nafarroako osasun-erakunde publiko eta pribatuetako osasun-langileak eta osasun-langile ez direnak sartzen dira.

1. Langile sanitarioen eta soziosanitarioen artean COVID-19aren zenbat kasu egiaztatu dira Nafarroan?

Pandemiaren hasieran eta 2020ko ekainaren 1era arte, Ministerioak COVID-19ak ukitutako osasun-erakundeetako langileen datuak metatuak deklaratzeko eskatu zuen, Nafarroako osasun-erakunde publiko eta pribatuetako osasun-langileak eta osasun-langile ez direnak barne. 2020ko maiatzaren 10ean, osasun-sistemako 704 pertsona zeuden kutsatuta.

2021eko hirugarren astean eta 2020ko maiatzaren 11tik aurrera, osasun-zentroetan lan egiten duten 1.161 profesional eta zentro soziosanitarioetan lan egiten duten 840 profesional erregistratu dira.

2. Osasun-langileengan konfirmatutako COVID-19ko kasuen artean, zenbat baieztatu ziren hileroko?

Nafarroan, osasun-zentroetan eta zentro soziosanitarioetan lan egiten duten osasun-langileen kasu baieztatuak, 2020ko maiatzaren 11tik 2021eko hirugarren astera bitartean.

Urtea	Astea	Osasun-zentroa	Zentro soziosanitarioa
2020	20	3	7
2020	21	4	5
2020	22	3	4
2020	23	0	5
2020	24	1	0
2020	25	1	1
2020	26	1	1
2020	27	0	0
2020	28	2	5
2020	29	5	6
2020	30	17	9
2020	31	7	4
2020	32	16	7
2020	33	12	15
2020	34	23	18
2020	35	16	24

Urtea	Astea	Osasun-zentroa	Zentro soziosanitarioa
2020	36	22	22
2020	37	48	56
2020	38	40	55
2020	39	42	43
2020	40	46	56
2020	41	79	54
2020	42	87	38
2020	43	103	51
2020	44	77	67
2020	45	51	38
2020	46	53	59
2020	47	42	21
2020	48	29	29
2020	49	31	14
2020	50	30	0
2020	51	40	10
2020	52	37	28
2020	53	26	13
2021	1	55	16
2021	2	59	30
2021	3	53	29
		1161	840

3. Zein da COVID-19a konfirmatuta duten langile sanitario eta soziosanitarioen ratioa osasun-zentro bakoitzean?

Informazio hori ez dago eskura. Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunei buruz Ministerioari emandako deklarazioan ez da jasotzen COVID-19ari buruzko datu hori.


4. Zein da COVID-19a konfirmatuta duten lan-

gile sanitario eta soziosanitarioen ratioa? Eta autonomia erkidegoen arteko alderaketa?

Osasun-zentroetan lan egiten duten osasun-langileen ratioa, zentro soziosanitarioei dagokienez, 1,3koa da Nafarroan (1.161/840).

Osasun-zentroetan lan egiten duten osasun-langileen ratioa, zentro soziosanitarioei dagokienez, 2,23koa da Espainian (42.552/16.824).

Figura 8. Distribución porcentual por centro de ocupación de los casos en personal sanitario y por CCAA. Casos de COVID-19 notificados a la RENAVE con diagnóstico posterior al 10 de mayo de 2020



5. Zein da COVID-19a konfirmatuta duten langile sanitario eta soziosanitarioen ratioa perfil profesionalen arabera? Eta autonomia erkidegoen arteko alderaketa?

Ez dugu informazio hori ezagutzen. Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunei buruz Ministerioari emandako deklarazioan ez da jasotzen COVID-

19ari buruzko datu hori.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, erizaintzako ikasleei egindako kontratuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erizaintzako ikasleei egindako kontratuei buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-20-PES-00374 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kon-

tseilariak egindako galdera horiei buruz eman beharreko informazioa:

Erizaintzako ikasleak kontratatu al dira laguntza-lanak egiteko?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ez da Erizaintzako Graduak ikaslerik kontratatu erizain gisa laguntzeko.

Zenbat eta zein zentro eta/edo zerbitzutan?

Aurretik esandakoarekin bat etorritz, ez da Erizaintzako Graduak ikaslerik kontratatu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, profesional sanitario eta soziosanitarioek pandemiaren garaian egindako lanarengatik emandako Nafarroako urrezko dominari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, profesional sanitario eta soziosanitarioek pandemiaren garaian egindako lanarengatik emandako Nafarroako urrezko dominari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera egin du (PES-00375), zeinean honako informazio batzuk eskatzen baitizkio Nafarroako Gobernuari. Hona hemen erantzuna:

Joan den abenduaren 3an, Nafarroako urrezko domina eman zitzaion profesional sanitario eta soziosanitarioek pandemian egindako lan bikainari.

1- Nafarroako Gobernuaren ustez, laguntza eta zaintza lanak egin zituzten profesional sanitario eta soziosanitarioei emandako urrezko domina Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko eta Eskubide Sozialetako Departamentuko talde kudeatzaileentzat ere al zen?

2- Urrezko domina benetan laguntza- eta zaintza-lanaren aitortza izan balitz, eta ez Nafarroako Gobernuak pandemia dela-eta egindako kudeaketaren aitortza, zein arrazoi dago profesional sanitarioak eta soziosanitarioak ordezkatzuz domina jaso zuten hiru pertsonetako bat Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarritzako Osasun Laguntzako Gerentziako zuzendaritza-taldeko kideetako bat izateko, kontuan hartuta pandemian ez duela laguntza-lanetan jardun?

Nafarroako Gobernuak, joan den 2020ko azaroaren 18ko gobernu-bilkuran, erabaki zuen 2020. urteko Nafarroako Urrezko Domina ematea osasun-langileei eta langile soziosanitarioei, COVID-19aren pandemian izandako dedikazioagatik eta jarreragatik.

Ezarritako edukiera-murrizketak direla eta, emandako saria kolektiboaren ordezkari txiki batek jaso zuen; besteak beste, Carlos Ibero Nafarroako Ospitaleguneko COVID-19rako solairuetako arretaren mediku koordinatzaileak; Ana Ariztegi erizainak, Zainketa Asistentzialetarako eta Etxeko Arretarako buruak; eta Amaya Iriartek, Artaxoako Virgen de Jerusalén egoitzako zain-tzaileak.

Beraz, aipatutako profesionalak, beren eremuan erreferentzia eta ospe handia izateaz gain, Nafarroako Urrezko Domina irabazten duten kolektibo guztien ordezkari gisa agertu ziren, eta hala adierazi zuten argi eta garbi bai Urrezko Domina jasotzeko ekitaldian, Nafarroako Egunean, bai sari hori dela-eta egin zituzten beste eskuhartze publiko batzuetan.

Nafarroako Gobernuak berretsi du saria jasotzeko izendatutako pertsonak, bai haien profil profesionalengatik, bai pandemian duten inplikazioa direla-eta, 2020ko Urrezko Dominaren, gure erki-degoan ematen den goraipamen handienaren, xede diren profesional sanitario eta soziosanitario guztien ordezkari duinak direla.

Ildo horretan, gogorazi behar da Carlos Ibero Espartzak mediku gisa egiaztatutako esperientzia eta konpromisoa dituela, bai osasun-laguntzaren mailan (koronabirusa eta beste patologia batzuk dituzten gaixoak artatu ditu), bai Nafarroako Ospitaleguneko COVID-19rako solairuen koordinazioan; izan ere, Ospitalegunean haren lidergo klinikoa eta profesionaltasunak aintzatespen zabala daukate.

Halaber, Ana Ariztegi Echenique andreak erizaintzaren arloan, oro har, eta oinarrizko osasun laguntzan, bereziki, duen aintzatespena. Ana Ariztegi Osasun Departamentuko Zainketa Asistentzialetarako eta Etxeko Arretarako Zerbitzuko burua da gaur egun, eta lanpostu horretan diharduela funtsezko zeregina bete du egoitzen eremuko osasun- eta antolaketa-neurriak koordinatzeko eta aplikatzeko (zehazki, Unitate Soziosanitarioko koordinatzailearen ondokoa da);

izan ere, kudeaketa-lan hori ere arreta-lanetik bereiz daiteke.

Ospe eta begirune handikoa da, halaber, Amaya Iriarteren ibilbidea. Artaxoako Jerusalemgo Ama Birjinaren Egoitzan 10 urteko esperientzia duen zain-tzailea da. Zentro hori izan zen, hain zuzen ere, birusaren lehen olatua modu gordinen jaso zuen zentroetako bat, eta bertan gertatu zen kausa horrengatik egiaztatutako lehen heriotza.

Nabarmentzekoa da, gainera, Urrezko Domina lankide guztiei modu sinbolikoan helarazi zaiela ondoren antolatutako ekitaldi ofizial banatan. Ekitaldi horietan bi kolektiboen eta erreferentziatzeko komunitateen ordezkari zabalagoak parte hartu ahal izan zuen, baina betiere COVID-19a dela-eta ezarritako protokoloen mugak eta baldintzak errespetatuz.

Nafarroako Gobernuak berriz ere azpimarratu nahi du administrazioko langileen profesionaltasunaren eta konpromisoaren defentsa, bereziki, osasun-sistemako eta sistema soziosanitarioko langile guztien, eta, bereziki, saria emateko zeremonian jasotzeko izendatu ziren hiru pertsonena.

Era berean, dei egiten du herritarrek beren profesionalengan duten konfiantzari eusteko eta konfiantza hori indartzeko, guztien artean birus honi aurre egin ahal izateko eta pandemiaren aurka elkarrekin borrokatzeko, COVID 19aren erabilera partidista saihestuz eta eztabaida eta eztabaida antzuetatik ihes eginez, osasun-krisiaren kudeaketari buruzko desadostasun legitimoetatik haratago; izan ere, kudeaketa horren berri eman izan dute Nafarroako Gobernuko arduradun politikoek eskatu zaien guztietan.

Profesional eta teknikari sanitario eta soziosanitarioenganako konfiantza-elementu horrek lehenetsuna izan beharko luke, eta argudio horri eutsi dio beti foru gobernuak Legebiltzarrean, gizartearen eta haren ordezkarien ekarpen giltzarri gisa salbuespenezko egoera honetan, bizi izan ditugun zirkunstantzien mailan egoteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 26an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, Turkian atxikita egon ziren arnasmagailuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Turkian atxikita egon ziren arnasmagailuei buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20/PES-00377), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“1. Erabili al dira ZIUko pazienteekin Turkian atxikita egon ziren eta, azkenean, Nafarroara iritsi ziren arnasmagailuak?

2. Zer balorazio egin dute arnasmagailu horien funtzionamenduaz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagile intentsibistek? Hona hemen erantzuna:

- Erabili al dira ZIUko pazienteekin Turkian atxikita egon ziren eta, azkenean, Nafarroara iritsi ziren arnasmagailuak?

– Ez, ez ziren beharrezkoak izan. Guztiak txekiatu ziren eta erabiltzeko prestatu ziren. 2020/04/09an iritsi ziren, pandemiaren kasuak jaisten hasi zirenean.

- Zer balorazio egin dute arnasmagailu horien funtzionamenduaz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagile intentsibistek?

– Erabili ez baziren ere, Elektromedikuntzaren atalak eta Tirapu doktoreak testatu zituzten. Alderdi teknikoak eta funtzionalak proba-baloien bidez ebaluatu ziren.

– Merkatuan eskuragarri aurkitu genituenean, bermeak zituzten arnasmagailu bakarrak ziren, martxo-apirila betean eskura zitezkeenak eta garaiz iritsiko zirenak.

– Turbina-arnasmagailu mota bat da, batez ere lekualdatzeetarako pentsatua, baina ZIU batean erabiltzeko baldintzak betetzen dituena, bereziki lehen COVID olatuan gertatu ziren zirkunstantzietan.

Paziente larrienak segurtasunez aireztatzeko beharrezkoak diren agindu bidezko modalitatea eta bat-bateko modalitatea dauzka, eta babes-modalitateak ere baditu. Halaber, aukera ematen du titia kentzeko prozesua eroso hasteko; horrelako prozesu batean erabili ohi diren presio-modalitateak badauzka.

– Une honetan erreserban daude, erabili behar badira ere. Pandemia gainditu ondoren, hainbat modutara erabili ahalko dira: garraio-arnasmagailu gisa eta egoera berezietarako arnasmagailu gisa, distantzia luzeko lekualdatzeetarako, Larrialdietako eremuan aireztapen ez-inbaditzaile gisa, fluxu altuko oxigenoterapia gisa...

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, COVID-19aren aurka jarri diren txertoen datuak gardentasunaren atarian argitaratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19aren aurka jarri diren txertoen datuak gardentasunaren atarian argitaratzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00001), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“Zergatik ez ditu Nafarroako Gobernuak, txertaketa hasi zenetik, gardentasun-atarian argitaratzen emandako txertoen datuak, txertatutako biztanleriaren tasa eta beste autonomia erkidego eta herrialde batzuekiko alderaketa ezagutzeko aukera emanen luketenak?”

Nafarroako Gobernuak ba al du informazio hori argitaratzeko asmorik? Erantzuna baiezkoa bada, noiz hasiko da egiten?”. Honako hau da horri erantzuteko informazioa:

Nafarroako Gobernuak gardentasunarekin duen konpromisoak irmoa izaten jarraitzen du. Ildo horretan, Navarra.es atarian txertaketa-prozesu guztiari buruzko eguneroko informazioa argitaratzen da goizero, emandako txertoak bana-

katuta, baita txertaketa metatuaren datu guztiak ere, eta herritar guztiarentzat irekita dago. Txertaketa-prozesua funtsezko ardatza da COVID-19ari eusteko eta hari galga jartzeko estrategian, eta, horregatik, datu garrantzitsutzat jotzen da haren bilakaeraren egoera, zeina une honetan esparru soziosanitariora iristen baita, bai profesionaletara, bai egoiliarretara, ospitaleetako eta lehen mailako arretako profesional sanitarioetara eta mendetasun handia dutenetara.

Txertaketa-datu horien argitalpena Osasun Ministeriora ere eskualdatzen da, plan nazionala baita. Horrela, zifrak eta ehunekoak egunero eguneratzen dira Ministerioaren webgunean. Bertan, izan ere, haiek autonomia-erkidegoen arabera banakatuta agertzen dira, eta aukera dago txertatutako biztanleriaren tasa ezagutzeko eta beste lurralde batzuekin alderatzeko.

Aipatutako gardentasunaren ildoan, datuak Foru Gobernuaren Gobernu Irekiaren atarian ere argitaratuko dira egun gutxi barru. Orrialde horrek, administrazio-egintzen gardentasuna tarteko, herritarren parte-hartzea hobetzea du helburu, politikak, prozedurak eta zerbitzuak herritarren benetako beharretara egokitzea lortzeko. Informatika-zerbitzuak lanean ari dira informazio hori ere eskuragarri egon dadin aipatutako webgunean, ahalik eta azkarren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasuneko teknikariei karrera profesionala aitortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasuneko teknikariei karrera profesionala aitortzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoari atxikitako foru parlamentari María Luisa De Simón andreak 10-21/PES-00002 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri erantzuteko emandakoa:

“Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariari galdetzen diogu Nafarroako Gobernuak ebazpen hori betetzeko egindako urratsei buruz, bai eta horren gainean dauzkan aurreikuspenei buruz ere” (honako hau dioen mozioa dela eta: Nafarroako Gobernuak premiatzen da arau bat taxutu eta susta dezan, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasun arloko teknikariei lanbide-karrera aitortzeko).

Une hauetan, Nafarroako Gobernuak departamentuetako eta haien erakunde autonomoetako langileei lanbide-karreraren sistema aplikatzeko zaie; batetik, lanpostua jabetzan duten osasun-langile fakultatiboak, haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa bada edo izan bada Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen

urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean aurreikusitako “Fakultatibo espezialistak” edo “Bertze osasun fakultatiboak” izeneko estamentuetan lanpostuaren koadramenduan sartu ahal izateko osasun titulazioetako edozein edukitzea; eta, bestetik, aipatutako eranskinean aipatzen den “osasun arloko diplomadunen” estamentuan sartutako espezialitateetarako izendatutako langileei.

Era berean, kontuan hartu behar da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 86.3 artikulua ezartzen duela honako hau negoziatu beharrekoa izanen dela, nor bere esparruan eta administrazio publiko bakoitzaren eskumenei dagokienez: “Nafarroako Aurrekontu Orokorren urteroko Proiektuaren barruan sar daitekeen Administrazio Publikoetako funtzionarioen ordainketen gehikuntza”.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen negoziazio-mahaiaren eskumena da, bertan 2017ko azaroaren 21ean erabakitakoaren arabera. Egin daitekeen erregulazio-proiektua sakon aztertu behar dute gizarte-eragileek (sindikatuak).

Azkenik, horrelako neurri batek izan dezakeen eragin ekonomikoa aztertu behar da, Nafarroako Gobernuak foru lege aurreproiektu bat egin aurretik. Neurri horrek aurrekontu-zuzkidura handia eskatuko luke, eta hori baloratu egin behar da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren 2020ko aurrekontuaren exekuzioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren 2020ko aurrekontuaren exekuzioari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok 10-21/ PES-00003 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak 46.472.208,00 euroko aurrekontua zuen 2020. urterako; horretatik, guztira 43.675.537,57 euro betearazi dira. Beraz, 2.796.670.43 euroko ez-betearazpena gertatu da. Hau da, Departamentuak % 93,98ko betearazpena izan du, eta, beraz, betearazpen-maila onargarri izanen litzatekeena baino gehiago ere izan da, are gehiago COVID-19ak eragindako agertoki zaila kontuan hartuta.

Betearazi gabeko alderditik, nabarmentzekoak dira, nabarmen txikiagoak diren beste batzuei kalterik egin gabe, beren zenbatekoagatik garrantzitsuena diren bi ez-betearazpen:

Alde batetik, 1.205.937,63 euroko ez-betearazpen bat dago "Etxebizitzen errentarientzako dirulaguntzak" izeneko 320000 32100 4809 261402 partidaren. Etxebizitza babestuaren sustatzaileen bitartez kudeatzen da partida hori; sustatzaile horiek publikoak (NASUVINSA, adibidez) edo pribatuak izan daitezke, eta maizterrek izaten dituzten laguntzen zenbatekoa hiru hilean behin ordaintzen zaie; maizterrek hilero ordaintzen dute errentamenduaren zenbatekoaren eta emandako laguntzaren arteko aldeagatik. Hala, sustatzaile batzuek, batez ere pribatuek, ez dute hiru hilean behin ordaindu beharreko zenbatekoen justifikazioa epearen barruan egiten.

Bestalde, 366.585,10 euro betearazi gabe utzi dira "Administrazioen arteko lankidetzak" izeneko 310000 31100 7609 261702 partidaren. Partida horrek finantzatzen ditu Nafarroako hainbat udalekin udal-plangintza egiteko eta/edo berrikusteko sinatutako hitzarmenak. Betearazpen txiki hori udal plan orokorren izapidetzearen konplexutasunari zor zaio, ordainketen programazioa oso ziurgabetasun handiari lotuta baitago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Kultura eta Kirol Departamentuaren 2020ko aurrekontuaren exekuzioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kultura eta Kirol Departamentuaren 2020ko aurrekontuaren exekuzioari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Departamentuaren 2020ko aurrekontuaren betearazpen-mailaren balorazioari eta haren ez-betearazpenen justifikazioari buruz" (10-21/PES-00004). Hona Nafarroako Gobernuo Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuo Kultura eta Kirol Departamentuaren 2020ko aurrekontuaren bete-

tzea % 93,64koa izan da. Balorazioa oso ona da, pandemiaren ondorioek iaz bizi izandako egoera konplexu batean eman delako aurrekontuaren betearazpenaren ehuneko hori.

Aurrekontuaren betearazpen-maila handia izan da laguntzen deialdiak egokitu egin direlako, laguntzen onuradun diren kultura- eta kirol-erakundeek premiak islatzeko; COVIDa dela-eta partidak sortu eta esleitu direlako; jarduera eta programa propioak egin direlako, COVIDari buruzko protokolo sanitarioetara egokituta; eta sektorea aktibatzea eragin duten beste batzuk sortu direlako.

Aurrekontu-partiden ez-betearazpenari dagokionez, erakundeek hitzarmen izendunak sinatzeari uko egin diotelako gertatu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021ko otsailaren 5ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Erabakia, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia bat sortzeko.

ERREGELAMENDU BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin “Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia bat sortzeko erabakia”, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 2021eko martxoaren 2an onetsia. Hona erabakiaren testua:

“1. Erregelamendu Batzordearen baitan Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia bat sortzea.

2. Epe bat ematea, 2021eko martxoaren 11ko 17:30ak artekoa, talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu ponentziarako ordezkaria izenda dezan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki

horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordez arituko dena.

3. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du ponentzia zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

4. Azterlana egiteko epea ponentzia eratu eta 6 hilabetera bukatuko da. Epe hori luzatzen ahaliko da.

5. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu ponentziaren eraketari buruz”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendaria (2021-2024).

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2021eko martxoaren 12ko 12:00ak arte luzatzea Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendariari (2021-2024) proposamenak aurkezteko epea. Aipatu plan zuzendaria 2021eko urta-

rrilaren 22ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-20/CDP-00010).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

